

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

3520

19/2020 DEKRETUA, irailaren 7koa, lehendakariarena, Jaurlaritzako sailburuek beren eginkizunak utzi dituztela deklaratzeko duena.

Autonomia Estatutuaren 33.2 artikulua eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.b) artikulua ematen dizkidaten ahalmenen arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Sailburu hauen kargu-uztea deklaratzeko, eta eskerrak ematea Euskadiren zerbitzura egindako lanagatik:

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio jaunari, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu gisa.

María Aranzazu Tapia Otaegui andreari, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu gisa.

Beatriz Artolazabal Albeniz andreari, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu gisa.

Ignacio María Arriola López jaunari, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu gisa.

Pedro María Azpiazu Uriarte jaunari, Ogasun eta Ekonomiako sailburu gisa.

Cristina Uriarte Toledo andreari, Hezkuntzako sailburu gisa.

Miren Nekane Murga Eizagahechevarria andreari, Osasuneko sailburu gisa.

Sonia Pérez Ezquerria andreari, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu gisa.

Bingen Zupiria Gorostidi jaunari, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu gisa.

Estefanía Beltrán de Heredia Arroniz andreari, Segurtasuneko sailburu gisa.

María Jesús Carmen San José López andreari, Lan eta Justiziako sailburu gisa.

2. artikulua.– Karguak uzten dituzten gobernuko kideek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, harik eta gobernu berria karguez jabetu arte.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.